



Ordutegi aldaketaren aurka, jangelako begiraleak

ASTIGARRAGA
HERRI ESKOLA

3



Gabonetako Hernani Saria jokoan, igerilekuan

HERNANI
IGERIKETA

6



Binakako Txapelketako finalean gaur aurrez aurre, beterano eta berri

HERNANI
ERREMONTEA

6

Jarritakoei segida, bertso berriek

Ikaragarritzko arrakasta izan zuen ostegunean Eñaut eta Unai Agirre anaiek eskainitako 'Auskalo zeinek jarriak' bertso jarrien emanaldiak. Lagun izan zituzten oholtzan Imanol Kamio, pianoan, eta Jexux Mari Irazu ere, bertsotan. Hernani, eta Dobera eta Kronika izan zituzten gogoan; baita Txirrita ere. Baina baita Goizueta eta Arano aldeko beste bertsolari batzuk ere.

2



Arozena saritua berriro, nafar egile berrien artean

GOIZUETA
LITERATURA

4

AGENDA

GAUR 19:00 : 'Napardeath' pelikula, afaria eta Atopia
ARANO

GAUR 16:30 : Curling-a probatzeko aukera, Portun
HERNANI



GAUR 16:30 : Zinea: 'Frozen II' eta 'Legado en los huesos'
HERNANI



BigMat

abenduaren 21etik urtarrilaren 31ra

Manpara erosita muntaketa doan

Ibaiondo Poligonoa, 30 HERNANI
943 33 61 86
www.ariceta.bigmat.es

LANZAROTE Urtarrilaren 19an Bilbotik hegaldia
7 gau 4* hotelean, pentsio erdian

448 €

TURKIA Martxoan 55 URTETIK GORAKOENTZAT Bilbotik hegaldia
Estambul + Capadozia, 8 eguneko zirkuitua 4* hoteletan, pentsio osoa + bixitak barne

798 €

PARIS Apirilaren 9an ASTE SANTUA Miarritzetik hegaldi zuzena
4 gau 2* hotelean, gosaria barne

450 €

LISBOA Apirilaren 8an ASTE SANTUA Bilbotik hegaldi zuzena
5 gau 4* hotelean gosaria + bixita barne

689 €

CRACOVIA Apirilaren 9an ASTE SANTUA Gasteizetik hegaldi zuzena
4 gau 3* hotelean, pentsio erdia + bixitak barne

849 €

VIETNAM-CAMBOYA Maiatzean Madrildik hegaldia
11 eguneko zirkuitua, pentsio erdia + bixitak barne

1935 €

2020AN ZUEN BIDAIAK GUREKIN



www.bidaibila.eus
Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI
BIDAIAK
Urbietan, 6
943 33 00 49

JARRAITU:



Puntako sei bertsolari gaur oholtzan, bertso jaialdian

Egaña, Martin, Pagola, Arzallus, Iguaran eta Martikorena ariko dira bertsoan; Lujanbio, gai-jartzen, 19:00etan.

HERNANI BERTSOLATA

Urte bukaerara gerturatu beza-la, gero eta gertuago dago Hernaniko Bertso Eskolak, Iraulio Panttalone Bertso Kabiya antolatutako Bertsolataren bukaera ere. Baina ekitaldi potoloeneta-ko bat falta da oraindik: bertso jaialdia.

Gaur izango da, arratsaldeko 19:00etan hasita, Biteri kultur etxean, eta puntako sei bertsolari igoko dira oholtza gainera: Andoni Egaña, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Eñaut Martikorena, Eli Pagola eta Amets Arzallus. Gaia jartzen ariko zaiena ere, ez da nolanahikoa: Maialen Lujanbio bera ariko da lan horretan.

Sarrera guztiak gaur bertan jarriko dira salgai, emanaldia hasi baino ordubete inguru lehenago, Biteri kultur etxean bertan.



Imanol Kamio eta Jexux Mari Irazu ere izan zituzten lagun Agirretarrek.

Bertso jarriek, arrakasta

Bertsolataria bukaera emateko, Urte Zaharreko erronda gertatzen da oraindik. Aurretik, baina, makina bat ekitaldi izan dira. Azkena, ostegunean Agirre anaiek Imanol Kamio eta Jexux Mari Irazuren laguntzarekin es-

kainitako *Auskalo* zeinek jarriak emanaldia.

Bete egin zen Biteriko aretoa, eta Doberak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei eta emanaldiko protagonistei, bildutako dirua elkarte laguntzeko bideratu delako. **K**

Ipuinak eta mendi buelta, urtea agurtzeko

Astelehenean Apaxi izango da Portun, 18:00etan. Asteartean Santa Barbarara joango dira.

HERNANI PORTU AUZOA

Urtea ondo hasi eta berria hobeto hasteko, makina bat ekintza antolatu dituzte Gabonetarako, Portun. Zine emanaldiaren ondoren, gehiago ere izango da.

Astelehenarekin, Apaxi ipuin kontalariaren bisita jasoko dute, arratsaldeko 18:00etan. Asteartean, berriz, urteko azken egunean, goizeko 10:30etan jarri dute hitzordua Portuko plazan,



Pepelu Castillock eta Maria Josefa Iturraldek jaso dute saskia.

Santa Barbarara mendi buelta eginez urte bukaera ospatzeko.

Berriari hasiera, bestalde, erroskila tailerrarekin emango diote, urtarilaren 3an, 16:30etan.

Saskia, banatuta

Bestalde, Gabonetako saskia zozketatu dute eta Pepelu Castillock eta Maria Josefa Iturraldek irabazi dute. **K**



Haur antzerki musikatua ikusteko sarrerak, salgai

Urtarrilaren 2an, ostegunarekin ikusi ahal izango da 'Lau urtaroak: zer ziren eta zer dira'. Sarrerak Biterin daude salgai.

HERNANI HAUR ANTZERKIA

Urteko kultur ekintzei hasiera haur antzerkiak emango die urtarilaren 2an, datorren ostegunean, Biterin. Arratsaldeko 18:00etan hasita, *Lau urtaroak: zer ziren eta zer dira* antzerki musikatua ikusi ahal izango da.

Sarrerak dagoeneko salgai daude, 3 euroan, Biterin bertan.

Musika eta umorea

Familia osoari eta 6 urtetik gorako haurrei zuzendutako ikuskizuna da, Vivaldiren *Lau Urtaroak* musika unibertsaletik sortu den hau. Musikaz gain, umorea ere izango da protagonista, komedia honetan, eta teknologiak eta birtuosismo instrumentalak ere nahasiko dira.

Teatro Che y Moche konpainiak taularatuko du 65 minutuko obra hau. **K**

Txotx irekierarako 5 sarrera bikoitz, zozketan

Urtarrilaren 15ean ospatuko da Alorrenea sagardotegian, Sagardo Berriaren Eguna. Urtarrilaren 5ean egingo da zozketa.

ASTIGARRAGA TXOTX IREKIERA

Sagardo Berriaren Egunerako prestaketa lanetan hasiak dira Astigarragan. Urtarrilaren 15ean egingo da, aurtan, Alorrenea sagardotegian, eta herritarrei aukera emango zaie bertara joateko.

Sagardoaren Lurraldeak 5 sarrera bikoitz zozketatuko ditu 2020ko txotx denboraldiari hasiera emango dion ekitaldi horretan herritarrek ere parte hartu ahal izan dezaten, eta urtarilaren 5era arte hartu daiteke parte. Horretarako, Astigarragako izan, 18 urtetik gora eduki eta sagardogilea ez izatea eskatzen da. Zoz-

ketan parte hartzeko, nahikoa da Sagardoetxeara joan, edo 943 55 05 75 telefonora edo info@sagardoarenlurraldea.eus emailera datu hauek bidaltzea: ekitaldira joango diren bi lagun izen-abizenak. Irabazleak www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean jakinaraziko dira.

Txotx Berri Herrikoia ere bai

Bestalde, aurtan ere Txotx Berri Herrikoia egingo da eguerditik arratsaldera, herritar guztiei irekita. Alorreneako txotx irekiera zuzenean jarraitu ahal izango da 13:45etatik 14:00etara herriko tabernetan. Eta arratsaldean, denetarik izango da, adin guztietako herritarrei zuzenduta.

Batetik, Joseba Barandiaran plazan haurrentzako jolasak izango dira aukeran, 17:30etan, eta 18:30etatik 20:30etara pin-txotx musikatua egin ahal izango da tabernetan. **K**

Kronika

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 08 99
688 660 714

Eposta:

kronika@kronika.eus,
astigarraga@kronika.eus,
urumea@kronika.eus eta
publi@kronika.eus.
www.kronika.eus

Lege gordailua:

SS-1469/2018
ISSN: 2659-5036

Lan-taldea:

A. Arbelaitz, O. Egaña,
I. Goñi, L. Goñi, B. Los
Arcos, A. Moreno, J. Osa,
M. Ramirez de Alda, L.
Rekondo eta J. Zubitur.

Argitaratzailea:

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

Larramendi 11, Hernani
☎ 943 33 27 99
Eposta: dobera@dobera.eus
www.dobera.eus

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZUETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DOBERA BAZKIDEAK
KRONIKALARIAK

TOKIKOM

2015 BIKAIN



Curling-a probatzeko aukera gaur, Portu eta Elizatxo artean

Bidea itxiko da 16:30etan, eta kirolean adituak direnek irakatsi egingo dute.

HERNANI AISIALDIA

Trafikoaren eta oinezkoen arteko mugikortasun arazoak konpontzeko seinalizazio bereziak jarri zituen Udalak Portu auzotik Elizatxora dijoan bidean. Bere funtzioa betetzen dute lurrean jarritako markek, baina Gabon hauetan, beste erabilera bat emateko proposamena ere egin du Udalak, aisialdiari begira.

Horrela, gaur arratsaldean *curling* kirola probatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.



Curling pista bukaeran egoten den dikan ondoen asmatzea da giltza,.

Pasabidea itxita, arratsaldean Curling-a, berez, izotzezko pista batean jokatzeko den kirola da. Lau kideko bi talde aritzen dira elkarren kontra, eta helburua izaten da 20 kilogramotako 8 harri, 45,5 metroko luzera eta 4,75 metroko zabalera izaten duen curling pistaren bukaeran

dagoen dianara bota eta ahalik eta ondoen kokatzea.

Kasu honetan, Portu eta Elizatxo arteko pasabidea ez da ez izotzezkoa eta ezta hain luzea ere, baina curling pistako marken antzekoak dauzka, eta baita zabalera ere. Horregatik, Gabonetako oporraldian «fami-

lian egiteko aisialdirako proposamena» luzatu du Udalak.

Kirolean adituak diren bi lagun ariko dira arratsaldeko 16:30etatik aurrera, nola jokatu erakusten eta praktikatzeko aukera ematen. Hori horrela, bidea itxita egongo da 16:00etatik 20:00ak arte. **K**

Jangelako ordutegi aldaketarekin desadostasuna adierazi dute begiraleek

«Lana azkarrago bete beharra» eta «haurren bazkaltzeko autonomiari mesederik ez» diola egingo arrazoitu dute.

ASTIGARRAGA HERRI ESKOLA

Herri Eskolako jangelako begiraleek mezua helarazi nahi izan diete haurrak bertan uzten dituzten gurasoei, jangelarako proposatu den ordutegi aldaketa medio. Begiraleak ez daude proposatu den ordutegi aldaketarekin ados, eta arrazoiak adierazi nahi izan dituzte. Orokorrean, aldaketak dakarren ondorio na-

barmenena da, «gure lana bete behar den bezala ez betetzea».

Arrazoi pegoagikoak eta beste Hainbat arrazoi eman dituzte begiraleek proposatu den ordutegi aldaketaren kontra agertzeko.

Batetik, azaldu dute, arrazoi pedagogikoei dagokienez, «haurren bazkaltzeko autonomiari eta erritmoari ez diola mesederik egingo: tresnen erabilera

egokia, poliki jatea, murtxikatzeta, txukun eta garbi jatea...».

Era berean, antolaketari dagokionez, diote «lan ordua 15 minutuz murriztuko» zaiela, baina «ez betebeharreko lanak: jangelak antolatu, umeak zerbitzatu, mahai tresneria jaso, jolasak antolatu... Estresa handituko du eta arreta gutxiago jasoko dute».

Azkenik, egutegiari dagokienez diote, iraila eta ekaina osoa goizez egingo direla eta, «HH3ko umeek ezingo luketela siestarik egin» eta «HH4, HH5, LH4, LH5 eta LH6ko umeek 30 minutu beranduago bazkalduko luketela». **K**



Loidiko Maxux, irabazitako saskia jasotzen.

Saskia opari, Loidiko Maxuxentzat

HERNANI OSIÑAGA

Gabonetako saski ederra zozketatu dute aurten ere Osinaga auzoan. Saria etxeratzeko aukera bizi-lagun askok izan zuten, baina bakarra izaten da irabazlea. Aurten, Loidiko Maxuxek izan du zorte hori. Saskiari esker, Gabonetako bazkari eta afari askotarako nahikoa gutizia etxeratu zituen, senide eta lagun artean banatzeko!

Eragiyok eta Kantuban gaur, lehiaketan

ASTIGARRAGA-HERNANI MUSIKA

Berriro ere Erreterian egiten den Ereintza Elkartearen Gabon Abestien Sarietan hartuko dute parte Astigarragako Eragiyok eta Hernaniko Kantuban abesbatzek. Aurreneko eta hirugarren sariak lortu zituzten iaz, hurrenez hurren. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera egingo da lehiaketa, Erreteriarako Galtzarabordako kiroldegian.

Doberako loterian, jarritakoa sari

URUMEA DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Dobera Euskara Elkartek saldutako loteria zenbakian jarritakoa tokatu da. Prezioaren bost eurotatik lau jaso daitezke hortaz, euro bat elkarte laguntzeko jartzen baita. Nahi duena bulegotik pasa daiteke.

Zine ordutegietan, aldaketa asteburuan

HERNANI ZINEA

Dolores Redondo idazlearen Baztango trilogian oinarritutako bigarren pelikula ikusi daiteke Biterin, gaurtik astelehenera: *Legado en los huesos*. Baina bertso-jaialdia medio, gaur 22:30etan bakarrik jarriko da. Bihar, berriz, 19:30etan, eta astelehenera, 16:30etan. Umeentzat, berriz, *Frozen II* jarriko da gaur eta bihar 16:30etan.

Bilboko pinerako, sarrerak salgai

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Urtarrilaren 3an Bilboko pinera joateko aukera izango da Xaguxar elkartearekin, baina aurretik sarrerak erosi behar dira. Kultur etxean izango dira salgai 20 euroan, bukatzen diren arte.

Urteari agur, kantuan

ASTIGARRAGA KANTUZ TALDEA

Abenduaren 31n Santiomendin *Dios te salve* koplak abesteko hitzordua jarri du Kantuz taldeak, 11:00etan. Parte hartzeko, antolatzaileei edo kultur etxean jakinarazi behar da.

**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin

* Beilatokiak

* Errausketak

* Lekualdatzeak

* Eskelak, koroak...



Zentrala Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

Zita hirukoitza gaur, 'Napardeath' eta Atopia rol jokoa ezagutzeko

Jalki kultur elkarteak antolatuta, 19:00etan jarriko da 'Napardeath' pelikula. Solasaldia eta afaria izanen dira gero, eta Atopia rol jokoa ezagutzeko aukera.

ARANO JALKI KULTUR ELKARTEA

Gabonetako oporraldia aprobetxatuta, arratsalde pasa ederra egiteko aukera proposatu du gaurko, Jalki kultur elkarteak: *Napardeath* pelikula ikusi eta ondorengo solasaldian parte hartu, elkartearen afaldu eta Atopia rol joko berria probatu ahal izanen da.

Pelikula eta solasaldia

Arratsaldeko aurreneko hitzordua 19:00etan jarri dute. *Napardeath* pelikula jarriko dute Maisuenean, eta segidan, solasaldia egingen da Beñat Iturrioz, zuzendari hernalararekin eta pelikulan parte hartu duten aktore batzuekin.

Katihotsak elkarteak egingo dako trilogiako azken pelikula



Hainbat pertsonaia daude aukeran Atopian: txikiteroa, sindikalista, influentzerra...

da hau. Aurretik. *Ataun Of The Dead* eta *Joxean's Hil Eben* egin zituzten, Zumalakarregi jenerala berpiztu nahi zuten zientzialari batzuen istorioarekin hasi eta jeneralaren beraren pausak jarraitzeko.

Solasaldiarekin bukatuta, elkartearen afaltzeko aukera izanen dute izena eman dutenak.

Atopia rol jokoa, estrainekez

Eguna borobiltzeko Atopia Rol Jokoa probatzeko aukera izanen da. Euskeraz sortu eta merkaturatu den aurrenekoa da, iazko Durangoko Azokan Sormen

Beka jaso ondoren, Etzi PM kolektiboak errealitate egin duena. Bertako partaide dira Arano-ko Ohiana Kalparsoro eta Unai Gorrotxategi.

Jokorako liburu bat argitaratu dute, «taldean sortu, idatzi eta marraztua, taldean irakurri eta jokatu izan dadin». Literatura fantastikoa eta jolas kolektiboa nahasten dira bertan. Hainbat pertsonaiaren artean aukeratu ahal izanen dute jolasera animatzen direnak. Eta behin probatu eta gustukoa dutenek, www.atopia.eus webgunean eskuratu dezakete. **K**

Mus txapelketa Umore Onan, urtea bukatzeko

Nabarmendu dute txapelketa ez dela goizuetarrentzako bakarrik; irekia dela. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da.

GOIZUETA UMORE ONA

Urtea agurtzeko Mus Txapelketa antolatu du aurten ere, 35garrenez, Umore Ona elkarteak, abenduaren 31rako.

Urteko azken egunean, arratsaldeko 16:00etan hasita jokatu ahal izanen dira partidak, eta

izena egunean bertan eman beharko da; bikoteko, 10 euroan. Antolatzaileek nabarmendu dute ez dela herritarrentzako bakarrik antolatutako txapelketa: «irekia da. Ateak zabalik hartuko ditugu denak».

Sariak ere politak izanen direla gogorarazi dute: «iaz haunditu ziren, eta parte-hartzea ia bikoiztu egin zen. 22 bikotek hartu zuten parte». Txapeldunek 100 euro eta opariak jasoko dituzte. Bigarren sailkatuek, berriz, 50 euro eta opariak. Eta hirugarren eta laugarren sailkatuentzako ere izanen dira opariak. **K**



Giro ederrean pasa zuten Santo Tomas eguna, Umore Onan.

Txistorra eta gehiago, Santo Tomasen

GOIZUETA UMORE ONA

Ederki pasa zuten eguna larunbatean Umore Ona elkartearen. Santo Tomas ospatzeko aitzakian, barrikotea antolatu zuten,

eta txistorraz gain, bakailau eta saiheskia ere izan zituzten, menua osatzeko; baita sagardoa ere! 62 lagun bilduta, «giro ederrean, gustora» egon ziren.

Hirugarren saria Arozenak berriro, nafar egile berrien artean

Bertso idatzien atalean jaso du saria Esteban Arozenak, 'Garai beltzen kronika arrosa' lanarekin.

GOIZUETA LITERATURA

Iruñeko Udalak antolatzen duen Nafar Egile Berrien Literatur Lehiaketan jaso du saria Esteban Arozena goizuetarrak. Bertso idatzien atalean hirugarren egin du, *Garai beltzen kronika arrosa* izenburudun bertso sortarekin.

Atal horretan, aurreneko saria Eneko Fernandezek lortu du, *Belaunaldi galdua* lanarekin, eta bigarrena, Joanes Illarregik, *5 euro* lanarekin. Gauzak horrela, iaz bezala geratu da bertso-paperean ataleko sariketa.

Narrazio laburren atalari dagokionez, Haritz Larraguetak irabazi du, *Pertseoren alabak* ipuinarekin; bigarren, Saioa Alkaiza izan da *Erabaki bat* la-



Arozenak ezin izan zuen sari banaketa ekitaldira joan, astelehenean.

narekin; eta hirugarren, Sarai Robles, *Hitz Gordeak* obrarekin.

Poesiaren atalean, azkenik, Iban Garro, Nerea Balda eta berriro, Sarai Robles izan dira sarituak, *Geroxeago itzuliko naiz*, *Asmo dekalogo* eta *Euriaren kolorea* lanengatik, hurrenez hurren.

Aipamen bereziak ere egin dira XXIX. Literatura Lehiaketa honetan: narrazio laburren atalean, Jose Aldasoro eta Maddi Ane Txoperenak jaso dute aipamena, eta poesian, Ainhoa Anduezak.

«Haurtzarotik nerabazarorako oroitzapenetan oinarrituta» Arozenak 36 bertso osatutako sorta aurkeztu du sariketara. «Haurtzarotik nerabazarorako oroitzapenetan, nireetan eta familiakoenean oinarrituta idatzi dut. Errealitatean oinarritutako istorioa kontatzen da, dena erreala ez bada ere», azaldu du.

«50eko hamarkada bukaeran jaioetako bertsolari baten istorioa kontatzen da, galdutako bizimodu bati buruzkoa, galtzearen dauden kontatzeko moduan». **K**



Ixabel Santa Kruz saskia jasotzen, dendan.

Saskia, Ixabel Santa Kruzek

EREÑOTZU GABONAK

Gabonetako saskia zozketatu du Ereñotzuko dendak. Gabonetako loteriako sari nagusia irabazi duen zenbaki bera izan da saritua, eta saridunak jaso du saskia: Ixabel Santa Kruzek izan du zorte on hori!

GABON HAUETAN
OPARITU EDERTASUNA
ETA ONGIZATEA

nibiru
UNISEX EDERGINTZA ZENTROA

SPA
Tratamenduak
Mikro
pigmentazioa
Masajeak

Indiba
Tratamenduak
Manikura
Pedikura
Fotodepilazioa
Automakillaje
ikastaroa

IZPIZUA, 1 HERNANI
943 24 35 60
www.nibiruedergintza.com

IRUBIDE JATETXEA
Zure jatetxea, Epelen

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 667 208 702

«Udaltzaingoak 'Ertzaintzatu' nahia» salatu du LABek

Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du urtarrilean Ertzaintza eta Udaltzaingo ezberdinetako lanpostuak betetzeko hautapen prozesu bakar bat jarriko duela martxan.

ASTIGARRAGA-HERNANI LAB

Urtarrilean Ertzaintza eta Udaltzaingo ezberdinetako lanpostuak betetzeko hautapen prozesu bakarra jarriko da martxan, Eusko Jaurlaritzak iragarri duenez, eta LAB sindikatuak «hautaketa-prozesu bakarraren deialdia arbitzatu» duela adierazi du, «EAJk eta Eusko Jaurlaritzak Udaltzaingoak 'Ertzaintzatu' nahi» dituztela salatuz.

«Aspaldiko helburua gauzatzen jarraitzeko beste urrats bat»

Sindikatuak azaldu duenez, lehendik datorren dinamikari jarraipena ematen dio hautaketa prozesu bakar baten deialdia egiteak. «Aurrez Udaltzaingoko bitarteko agenteen poltsarekin, agenteen deialdi bateratuarekin, Seguratsun Publikoaren Legearekin, Udaltzaingoaren Koordinazioarekin... egin bezala, aspaldiko helburua gauzatzen jarraitzeko beste urrats bat da hau. Segurtasun Sailak bere Ertzaintzarekin dituen arazoak udaltzainak kontrolatuz eta zuzenduz konpondu nahi ditu Erandiotik».

Era berean, LABek gehitu du hau ez dela eredu egokia. «Deialdi bateratuak ez baziren udaltzainen integrazioarako eredu

egokia, udaltzaingoko polizia eredu Ertzaintzaren berdina izan dadin emandako azken urrats hau, udaltzainen desintegrazioarako erabateko apustua da. Erabaki hau funtzionatzen ez duen eta arazoak besterik ematen ez dituen eredu batekin sakontzeko beste urrats bat da. Jendartearen egungo arazoei erantzunik ematen ez dien eredu agortuan itsu-itsuan jarraitzea da».

Udaltzaingoetako enplegu egoerari «soluziorik ez»

Honi guztiari «udal autonomia murrizten» dela gehitu behar zaiola uste du LAB sindikatuak, eta horrek Udaltzaingoetako «enpleguaren egoera larria» hobetzeko modurik ez duela jartzen.

«Aurreko urratsen moduan, Udal autonomia murrizten jarraitzeko bete pausu bat da honakoa. Negoziazio kolektiborako eskubidearen aurkako hamaikagarren eraso izateaz gain, Udaltzaingo ezberdinetan dagoen enpleguaren egoera larriarekin bukatzeko soluziorik ez dakarren neurria da hau».

Hori horrela, sindikatuak hainbat neurri hartzeko eskatu du. Batetik, «Udal autonomia murrizten jarraitzeko hamai-kagarren urratsa den deialdi honen aurrean orain arte izan-



Urkullu lehendakaria eta Beltran de Heredia segurtasuneko sailburua Hernaniko ertzain-etxean izan ziren irailean.

dako utzikeria albo batera utzi eta arduraz jokatzeko exigitzen diegu Euskal Herriko Udalei, azaldu du.

Bestetik, «Udalez udal hautapen prozesu propioak martxan jartzeko unea» dela adierazi du, «Udaltzaingo plantilen dimentsioak aztertuz, herritarren beharrak gain hartuta zerbitzu publikoaren kalitatea haundituz. Udaletako LPZren (RPT) barruan dauden lanpostu guztiak eskaini daitezela, langileen ordezkariarekin lehentasunak, prozesuak, profinal eta abar negoziatuz».

Azkenik, LABek adierazi du «herritarrekiko hurbiltasunean eta integrazioan oinarritzen den udaltzain eredu bat defendatzen» duela. «Bada garaia, euskal jendarteak eskatu eta behar duen kalitateko segurtasun publikoaren bidean, Euskal Polizia proaktiboa, jendartearen integratua, jendartearen beharrei erantzungo diena eta berdintasun baloreetan oinarritutakoa abian jartzeko» **K**

700 ertzainen eta 26 udaletako 111 udaltzainen hautaketa, urtarrilean

Hautaketa-prozesuaren deialdia EHAA urtarilaren 8an argitaratzea aurreikusten da, eta 9tik aurrera eman ahal izango da izena.

ASTIGARRAGA-HERNANI POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIA

Abenduaren 19an bildu zen Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendaritza Batzordea, Estefania Beltrán de Heredia segurtasuneko sailburua buru zela, eta urtarrilean argitaratzekoa den hautaketa-prozesuaren berri eman zuen.

Denera, 700 ertzainen eta EAEko 26 udaletako 111 udaltzainen hautaketa-prozesu bateratua martxan jarriko dela jakinarazi zuen. Aurreikusitakoaren arabera, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da 2020ko urtarilaren 8an, eta hurrengo egunetik aurrera eman ahal izango da izena, otsailaren 5era bitartean.

Deialdi honekin «ertzaintza-ko oinarritzeko eskalako agenteen 700 plazarako 29. promozioa osatuko da». 1982tik egin den deialdirik haundiena izango da. Gehitu dute deialdiko lanpostuen kopurua «zabal litekeela», udaletako udaltzaingoetan, arrazoi ezberdinengatik, hautaketa prozesuak iraun bitartean agente plaza berriak sortu ahala.

ITUROLATARROK



Ikusi makusi...
Idoia Telleria Maritxalar

Kulturaren iceberg-a

Kultura dugu gizartearen haurtxo zaurgarria, inguruko aldaketei kateatuta dauden ekintzen eta mezuen adierazpide baita. Beraz, ezegonkorra. Eta sortzaileak, harea mugikorretan bizirik dirauten eragileak. Egiten duten horren muturra soilik ikusten ez delako izango ote da?

Egia da, kontzertuak, erakusketak edota antzerkiak bi ordu eskas irauten dutela. Hau da, icebergaren puntaren antzera, sortzaileak egindako lanaren frakzio bat jakitera ematen da solik. Gutxitan erreparatzen diogu sortzaileek egindako lanaren osotasunari, icebergaren behealdean gelditzen denari, ideien mamitze prozesu luzeari.

Agian horregatik sortzaileek egiten duten lana ez da baloratzen behar den moduan, publikoaren (eta

kontratatzailen) bistatik at gelditzen delako. Honela, balorazio gabezia horrek kulturaren aritzen diren pertsonen egoera larritzen du. Erregulazio falta dago; ez dago sortzaile profesionalen lan-hitzarmenik eta honek kontratatzaileei larderiaren bidetik jotzeko aukera ematen die, sortzaileak prekarizatuz.

Kultura behar dugu gure egunerokotasunetik ateratzeko, irribarre egiteko, beste ikuspuntuetatik begiratzeko, eraldatzeko. Sormena aldarrikatu.

Cristina Calvo Herrero

Experimento Limon

Sorkuntza eta hezkuntzaren artean zubiak eraikitzen duen irabazi gabeko kultura elkarte da, Madrilen sortua eta Euskal Herrian berriki martxan jarri da.

<https://www.experimentolimon.org/>

Hernaniko Elkarlan Sorgunea

Iturola.eus

Florida Auzoa, 28 - 20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

**TALLERES MITXELENAN
BABESTUTAKO ATALA**

Eziago Poligonoa, 21
Zikuñaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus

Finalerdietakoa irauli eta txapela irabaztea helburu, Barrenetxea IVak

Binakako Txapelketako finala jokatu du hernaniarrak Matxin Illrekin, Urriza eta Larrañagaren aurka.

HERNANI ERREMONTEA

Giro ezinhobea espero da arratsalderako Galarretako frontoian, 16:00etatik aurrera jokatu diren lau erremonte partiduetan bigarrena, Binakako Txapelketako finala izango baita. Aurrez aurre izango dira Matxin III eta Barrenetxea IV hernaniarra, eta Urriza eta Larrañaga. Badirudi hasiera batean azken hauek, urdinak izango direla faborito, finalerdietan 29 tantotan utzi baitzituzten aurkari berak. Baina protagonistek argi dute «partidu parekatuagoa» espero dutela.

Materialean bezala, estrategian ere alde

Partidua parekatua izatea espero badute ere, ezagutzen dute elkar aurkariak; bereziki, Barrenetxea IVak eta Urrizak. Elkarrekin irabazi zuten binakako azken txapela biek, 2012an; her-



Partidu parekatua espero dute lau finalistek.

naniarraren bakarra. Gauzak horrela, pelota desberdinak aukeratu dituzte, estrategiak ere desberdinak erabili nahi baitituzte. Gorriek pelota biziagoak eta hegaldi altukoak aukeratu dituzte, «Urriza jokoan sartzea saihesteko». Urriza eta Larrañagak, ordea, pelota lehorragoak nahiago izan dituzte, hegaldirik

hartzen ez dutenak, «Barrenetxeak min egitea saihesteko». Matxin III, berriz, bigarren ariko da finalean, eta Larrañaga garentzat berria izango da esperientzia.

Beste hiru partiduetan aurrenekoan Zubiri goizuetarra ariko da Juanenearekin, Aldabe-Azpiroren kontra. **K**



Alebin eta benjamin mailetako 45 pelotari ari dira jokatzen Gabonetakoan.

Oiartzabal eta Insaustik finala gaur, Zestoan

Gipuzkoako txapela lortzen saiatu dira, 16:30etan hasita. Hernanin, pelota eskolako txapelketak segiko du.

URUMEA ESKU PELOTA

Gabonetan ere ez dute atsederako tarterik Urumea bailarako pelotariak. Hernaniarrei dagokienez, Anartz Oiartzabal eta Oinatz Insausti, bigarren mailako jubenilek Gipuzkoako finala izango dute gaur jokoan, 16:30etan hasita, Zestoan. Tolo-sako Perurena-Albeniz II bikotea izango dute aurrez aurre. Hauek dira faborito, baina hernaniarrek ere ez dute aukerarik falta;

finalera 9 garaipen eta 2 porrotekin iritsi dira, eta finalerdietan 22-15 irabazi zioten Behar Zanari.

Bestalde, Hernaniko Pelota Eskolako alebin eta benjamin mailetako 45 pelotarik atzo hasi zuten Gabonetako pelota eskolako txapelketa, eta gaur eta bihar partidu gehiago jokatu dituzte, kiroldegiko frontoian; gaur, 28, 10:00etan hasita, eta bihar 12, 10:00etan hasita.

Trinketean, berriz, Iruran jokatu dira hainbat partidu gaur eta bihar.

Goizuetan, beste bi

Goizuetan, berriz, Umore Ona Txapelketako beste bi partidu jokatu dira gaur, 10:30etan hasita, ume eta haurren mailan. **K**

Hernani Saria kiroldegian, igerilariek

HERNANI IGERIKETA

Urtero Gabonetan egiten duen bezala, Hernaniko igeriketa taldeak Hernani Saria antolatu du gaurko, eta Gipuzkoako beste taldeak gonbidatu ditu lehiara. XXIII. edizio hau arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta kiroldegiko igerilekua itxita egongo da 15:30etatik aurrera.

Azken egunak, San Silbestrerako

HERNANI SAN SILBESTRE

Asteartean, urteko azken egunean egingo da Wukroren aldeko San Silbestrea. Lasterketa nagusia, 4 kilometrotakoa, 18:00etan hasiko da Plazan, eta izen-ematea irekita dago rockthesport.com webgunean. Egunean bertan ere eman ahal izango da izena. Aurretik, 17:30etan 8 urtekoentzako lasterketa egingo da, eta 17:45etan 8-13 urte artekoena.

Garaipenak poltsikoratuta, urte bukaera

HERNANI BOLEIBOLA

Pasa den asteburuan jokatu zituzten boleibol taldeek urteko azken partidua. Ordurako gehienek hasia zuten atsedendia, eta seniorrek bakarrik jokatu zuten; biek irabazi zuten. Mutilek Sestaoren kontra lortu zuten garaipena 3-2. Neskek, berriz, Goierriren kontra, 0-3.

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun neska euskaldunak, lan egingo luke tabernan, gauez. Deitu: 637 993 061
Sagardotegirako sukaldaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. Euskaldunak.
Deitu: 625 256 777
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



Indaberea opariak jasotzen Azken Kilometroa eta Anexo Elektrotresna dendetan.

Indaberea familiak, saria

HERNANI ESKUBALOA

Gabonetako saski erraldoia zozketatu du Hernani

Eskubaloi Taldeak, eta aurten Indaberea familiak erosi du 6590 zenbaki sariduna. Besteak beste, opari jaso dituzte Azken Kilometroa dendako bizikleta eta Anexo Elektrotresnakeko telebista.

EGURALDIA GAUR Eguzkia jaun eta jabe izango da, toki batzuetan goizean lainoak agertu badaitezke ere. Goizean izotza botako du, baina eguerdian epeldu egingo du. Min.5° / Max.14°	BIHAR Ez da aldaketarik espero. Goizean izotza bota dezake, baina eguzkia izango da berriro jaun eta jabe eta epeldu egingo du, atzo baino zertxobait gehixeago. Min.7° / Max.16°
TELEFONO ZENBAKIAK TAXIAK 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) UDALZAINGOA 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) DYA 943 464622 AUTOBUSAK Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103 ANBULATORIOA 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)	
FARMAZIAK Egunez: A. Etxebarría Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 Gauez: Aldabe Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) 943 336022 Goizueta: Nagusia 64 948 514353	

49. BINAKAKO ERREMONTTE TXAPELKETA NAGUSIA 2019

ABENDUAK

28

Larunbata 16:30h.

E R R E M O N T T E A

B I Z I R I K

FINALA

**MATXIN III
BARRENETXEA IV**

VS

**URRIZA
LARRAÑAGA**

1



Hernaniar guztiak beherapena (sarrera:15€)

%50

 **etxe onenak**

 **ORIAMENDI
2010**

 **galarreta**
JAI - ALAI



Gero eta aukera gehiago, baina ez beti hobeak

Urteko errepasoa egin eta telesail gustukoenen zerrenda osatu du Aitor Caracciolo. Denak ezagutzen ez badituzu, baduzu urtea bukatu eta berria hasteko nahikoa lan!



AITOR CARACCILO

URUMEA TELESAIL ETAN ADI(K)TUA

Urtea amaitzeko dagoen honetan, denek dugu joera halako atzera begirako bat egiteko. Gure buruan sortutako eskema tenporalean, itxiera edo errepaso puntutzat jotzen dugun unea da. Eta honekin hainbat erabaki, lan, momentu edo sentipen berrikusi edo baloratu nahi dugu. Zer esan, orduan, nere adikzioari buruz ere... Urteak ekarritakoari so egitea tokatzen zaigula.

Urteko telesail interesgarrien (ez dut 'onenen' esango, nik ikusi eta subjektiboki aukeratu-takoak dira-eta) zerrendarekin hasi aurretik, aipatu nahiko nituzke beste ideia interesgarri pare bat.

Lehen, mundu honek jasan duen masifikazioa. Urte batzuetatik hona esponentzialki igo da telesailen produkzio

kopurua. Honek tamalez, kantitatean gorakada ekarri badu ere, kalitatean ez du hainbeste eragin kasu askotan. Egia da, inbertsioa handia da, arrisku gehiago hartzen dira istorio eta tematika ezberdinak tratatzeko (zinean azken aldian gertatzen ez den bezala), baina kasu askotan merkatua saturatzen duten produktu azkarrak ateratzearen alde izaten dira kate asko, kompetentziari aurre egitearren. Eta gauzak honela halaxe gertatzen zaio ezohiko ikusleari, galtzera iristen dela gaur egun dugun telesail itsas zabalean.

Bigarren, telebista munduaren digitalizazioa hemen da. Hainbat plataforma bagenituen (Netflix, HBO, Amazon, Filmin...), gehiago etorri dira (AppleTV+, Disney+, Facebook-Watch...), kate tradizionalak ere zerbitzu berriak sortu dituzte (EITB Nahieran, AtresmediaPlayer...). Badirudi konturatu direla behingoz, ikusleok nahi duguna eta nahi dugun momentuan kontsumitzeko aukera badugu, modu errazagoan eta hobean iristen direla berauen produktu berriak edonora; betiko audientzia, ordutegi, hizkuntza edo

2019 TELESAILAK

- 1- Watchmen (HBO)
- 2- Succession (HBO)
- 3- Chernobyl (HBO)
- 4- The virtues (Channel 4)
- 5- Il miracolo (Sky Italia)
- 6- Mindhunter (Netflix)
- 7- Euphoria (HBO)
- 8- Years & years (BBC)
- 9- Undone (Amazon)
- 10- Unbelievable (Netflix)
- 11- State of the union (Sundance Channel)
- 12- When they see us (Netflix)
- 13- Fleabag (BBC)
- 14- The victim (BBC)
- 15- What we do in the shadows (FX)
- 16- Limetown (Facebook watch)
- 17- After life (Netflix)
- 18- Dickinson (AppleTV+)
- 19- Marianne (Netflix)
- 20- Ramy (HBO)
- 21- The boys (Amazon)
- 22- The OA (Netflix)
- 23- The little drummer girl (BBC)
- 24- Wayne (Youtube)
- 25- Russian doll (Netflix)
- 26- Sex education (Netflix)
- 27- Kingdom (Netflix)
- 28- Barry (HBO)
- 29- Sex education (Netflix)
- 30- Black monday (Showtime)



30 telesailen zerrenda egin du Caracciolo, 2019koen artean.

publizitate arazoak baztertzuz. Ideia bat egin dezazuen: espainiar estatuko kate generalistek saltzeko zaila zen galizierazko telesail bat baztertu zuten eta Netflixek potentziala ikusirik, Ingalaterrako telesail ez natiobetako ikusienetakoa bihurtu du. Hau da, dena dugu eskuragarri eta hori ona da! Telesail berri ugari aurkitu eta nahi dugunean ikusteko edota Goenkale bezalako klasiko bati berriz ere hasieratik heltzeko. Aukerak!

Dena den, goazen mamira. Nire telesail sailkapenean irabazletzat HBO hegemonikoa aurkitzen da. Bereak diren *Watchmen*, *Succession* eta *Chernobyl* dira nire zerrendaren buru. Hirurak ezagunak seguruenik zuetako askorentzat, hauek aipatu baititut jada, bestela, izenak gogoratu. Produkzio ingelesek ere badute aipamen de- xente: *The virtues*, *Years & years*, *State of the union*, *Fleabag*...

Aipamen berezia behar du agian *Il miracolo* telesail italiarrak, bosgarren postuan badago ere, biziki txunditu ninduen lana izan zen-eta. Hala ere, agian ez da publiko guztiari irekitako proposamena, baina *The Leftovers* telesail kuttunaren antzera, errealtatea eta fedea zalantzan jartzen dituen telesail potentea, bisualki eta narratiboki.

Egia esan, horrela jarraitu nezake beste 4 orrialde oso betterik, baina agian errazagoa izango da, esandako guztiak eta gero, nik hautatutako 30 telesailen zerrenda uzten badizuet. Badakit asko direla pentsatuko dutela askok, baina aurtun izandako kantitate eta kalitatea kasu batzuetan ere halakoa izan da. Beldurrik ez izan eta jolas dezagun bingora. Zerrendatik ikusitakoak markatu eta osatu bitartean baduzue zeregina! Urte berri on! **K**

urolalde

Deitu konpromezurik gabe!

Orkolaga, 14. Hernani
943 33 37 11
urumea@urolalde.net

ENPLEGURAKO LANBIDE-HEZIKETA ZENTROA

Langile eta langabetuentzako doako ikastaroak

HURRENGO DOAKO IKASTAROK, LANBIDEK DIRUZ LAGUNDUTA PRESENTZIALAK / HASIERA ABENDUAREN 30EAN / HARTU ZURE TOKIA

- **INGELES A2-B1** Langabetu edo lanaldiaren %30a baino gutxiago duten langileentzat. Eman izena Lanbideren webgunean, eta hurrengo kodeak erabili: **A2 18201887 - B1 18201890** Ingeles maila guztiak aukeran, deitu eta eskatu informazio gehiago.
- **DISEINU GRAFIKOAN TITULAZIO OFIZIALA** Langabetu edo lanaldiaren %30a baino gutxiago duten langileentzat. Eman izena Lanbideren webgunean, eta hurrengo kodea erabili: **18201902**

Urolalde, zertifikatuta: OHSAS 18000 (PRL), ISO 50001 efizientzi energetikoa, ISO 14001 Ingurugiroa, ISO 27000 informazioaren segurtasuna. Ingurune eta naturarekin gure konpromezua sendoa da.

Enpresentzako ikastaro bonifikatuak
Prestakuntzaren finantzaketa kudeatzen dugu

Noruegako fiordoak
(itsas bidaia)

Eslovenia & Istria

NOAOA BIDAIAK

Bidaiak taldean

Denboraldi aurrerapena

Telf: 943 37 36 13 info@noaoa.eus Hipodromo etorbidea, 10. Lasarte-Oria